

**EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNA**

2023-12-03 Donostia-San Sebastián 03-12-2023

Lehendakariaren hitzaldia – Discurso del Lehendakari

Eusko Legebiltzar buru andrea, herri agintari eta herri ordezkariok, euskal gizartearen ordezkariok, jaun andreok egun on eta eskerrik asko ekitaldi eder hau antolatzeagatik eta parte hartzeko aukera eskaintzeagatik.

Euskararen Nazioarteko Eguna euskararen biziberritzeari begira jarri ohi gaitu.

Euskararen eguna aukera on bat izaten da atzera begiratzeko eta nondik gatozen gogoratzeko. Aukera on bat, etorkizunari so egin eta eginkizun duguna pentsatzeko, asmatzeko, amets egiteko. Baita ospatzeko ere.

Nahiaren eta frustrazioaren artean bizi ohi garen euskaldunontzat ez da ariketa txarra egindakoari balioa ematea eta, une batez, noraino iritsi garen konturatzea.

Euskaltzaindiak “Bonifacio Echegaray, promotor y defensor del euskera” artikulu bilduma argitaratu du.

Gogoangarria da, 1927tik 33ra bitartean, legegizon zumaiarrak idatzitako gogoetak irakurtzea. Miresgarria da bere izaera baikorrari darion maitetasuna eta zaletasuna, dena zail eta egiteko zegoen garai haietan.

Ariketa interesgarria da baita ere XXgarren mendeko 60ko eta 70ko hamarkadetan, berpizkunde ahalegin betean, euskarari arnasa eta hauspoa ematen horrenbeste lan egin zutenen jorana eta eginahala gogoratzea. Berriro ere dena eta guztia egiteko egon zen aldi hartan. Haiei esker iritsi gara gauden tokira.

Gaur, XXIgarren mendean, erronka berriak ditugu, eta hemen gaude berriro, nahiarekin eta ezinarekin borrokan, erabaki berriak hartzeko atakan. Ataka

horrek eztabaida berriak ekarriko ditu eta erabaki berriak hartzeko beharko dugun bulkada ere emango digu.

Erabakiak hartu hartuko ditugu. Baina, aurretik, egoki litzateke nora iritsi nahi dugun erabakitzea, eta helburu adostu eta neurgarriak finkatzea.

Ez da aski nahi izatea. Beharrezkoa da nola eta zer lortu nahi dugun argi esatea, jakina izan dadin. Beharrezkoa epeak zehaztea eta zer baliabide izan ditzakegun eta izango ditugun argi edukitzea. Bestela, beti ibiliko gara behin ere finkatu ez ditugun helburuak bete ezinik, frustrazioan.

Erronka berriak ditugu. Askok hezkuntzarekin dute zer ikusia. Hezkuntza sistema izan da euskara biziberritzeko izan dugun biderik eraginkorrena, oparoena. Aurrerantzean ere horrela izango da.

Herritar trebatuak nahi ditugu, ezagutzen ez dugun etorkizunari aurre egiteko tresna eta baliabide egokiak izango dituzten pertsona kriteriodun eta kritikoak. Eta argi dago hizkuntzak tresna garrantzitsuak izango direla, etxeko eta lagunarteko harremanak goxatzeko zein kanpoko eta munduko harremanetarako.

Erronka berriak ditugu.

Mundu berria dator eta gure Herriak bere tokia aurkitu nahi du mundu berri horretan.

Koldo Mitxelenak esan zuen bezala, euskarak ere bere tokia behar du; toki nahikoa, beste hizkuntzen artean, bizi dadin eta aurrera egin dezan.

Aurtengo Euskararen Nazioarteko Egunak mundu berri bati begira paratu gaitu, mundu digitalari begira alegia.

Erronka berria da, bizi dugun garaiari dagokiona. Horretan ari gara eta erronka berri horretan ere aurrera goaz.

Hasiak egina dirudi, eginak urre gorri!

Zorionak eta ospatu dezagun alai Euskararen Nazioarteko Eguna!

Eskerrik asko!